

2002KO EKAINAREN 27KO
OHIKO OSOKO BILKURA

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta biko ekainaren hogeita zazpian, iluntzeko zazpian, Lazkaoko Udal Osoa biltzen da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Felix Urkola Iriarte Alkatearen lehendakaritzapean, ohiko batzaraldia egin asmoz.

Bertaratutako zinegotziak honako hauek dira: Igor Sarriegi Zumarraga, Inazio Estensoro Eskisabel, Gorka Lamy Intsausti, Arantxa Zumelaga Agirre, Irantzu Amundarain Irizar, Joseba Hernandez Madinabeitia, Jon Agirre Garmendia eta Urko Irastortza Aldanondo.

Juan Manuel Serna Portugal eta José Luis Otamendi Romero zinegotziak ez dira bertaratu.

Idazkari lanetan Iñaki Eskisabel Zurutuzak dihardu.

Amundarain zinegotziak adierazten du bizi dugun egoera ikusirik, beraiek bizi dutena batez ere eta hemen ezer ez dela mugitzen eta honelako ekintzen aurrean planteia egiten hasi behar dutela eta beraz pleno honetan ez dutela parte hartuko eta alde egingo dutela.

Alkateak esaten die eguneko gai zerrendako 3. eta 4. puntuak gehiengo osoaren aldeko botua behar dutela bere onarpenerako eta beraiek alde egiten badute ezingo direla onartu.

EH-ko lau zinegotziak plenoa utzi eta batzar aretotik alde egiten dute.

I.- AURREKO AKTA-

Alkateak bilkurari hasera eman ondoren, bertaratutakoen onespenera aurkezten da 2002ko maiatzaren 30an egindako bilkurako akta, idatzita dagoen moduan onartzen delarik.

II.- ALKATETZAREN EBAZPENEN BERRI EMATEA-

Ondoren Alkateak azken Osoko Bilkuratik gaur arte emandako Alkatetzako Ebazpenen berri ematen du, ebazpen hauen zenbakizko laburpen baten bidez.

Osoko Bilkura jakinaren gainean gelditzen da.

Alkateak esaten du eguneko gai zerrendako 3. eta 4. puntuak erritiratu egiten dituela, beraien onarpenerako behar adinako partaide kopururik ez dagoelako.

III.- KREDITU GEHIGARRI BIDEZKO 2 ZBK.DUN KREDITU ALDAKETA-

Udal honetako 2002ko Aurrekontua afektatzen duen Kreditu Gehigarrien bidez egin beharreko 2 Zbk.dun Kreditu-Aldaketarako Espedientea irakurri ondoren.

Idazkari-Kontuhartzaileak jaulkitako txostena irakurri da. Honek aipatutako espedientea aplikagarria zaion araudiari egokitzen zaiola adierazten du, zehazki Toki

...///...

...///...

Entitateen Aurrekontuei buruzko otsailaren 26ko 4/1991 Foru Arauaren 34. artikuluan eta Toki Entitateen Aurrekontu-Erregelamendua onesten duen abenduaren 1eko 96/1992 Foru Dekretuaren 40. artikuluan ezarritako beharkizun eta tramiteei egokitzen zaiela.

Era berean, Haziendako Batzorde Informatzaileak formulatutako aldeko txostena eta onespén proposamena irakurri dira.

Alkateak esaten du kreditu gehigarri bidezko kreditu aldaketa honetan alde batetik Udaletxe atzea eta Elosgi 11-13 ko urbanizazio lanak egiteko eta bestetik 1 Hirigintz Areako 3 Burutze Unitateko jabeekin izenpetutako hitzarmenaren ondorioz hauei itzuli beharreko zenbatekoak aurrikusiko dituzten partidak sortzen direla eta iazko kreditu gerakinarekin finantziatuko dela.

Dagokion eztabaidaren ondoren botutara jarri eta bertaratutako aldeko 5 botuz (EAJ, EA), honako hau

ERABAKI DA

Lehenik.- Udal honetako aribideko ekitaldiko Aurrekontua afektatzen duen Kreditu Gehigarrien bidez egin beharreko 2 Zbk.dun Kreditu-Aldaketarako espedientea onestea, formulatutako proposamenaren eta ondoko kapituluko laburpenaren arabera:

KREDITU-GEHIKUNTZAK

Kapituluak	Izendapena	IGOERAK
IV	Transferentzia arruntak	70.740,94
VI	Inbertsio errealak	90.000,00
IGOERAK GUZTIRA ...		160.740,94

FINANTZATZEN DITUZTEN BALIABIDEAK

Kapituluak	Izendapena	Zenbatekoa
VIII	Diruzaintzako Gerakina	160.740,94
GUZTIRA		160.740,94

Bigarren.- Jendaurreko informaziorako tramitean jar bedi, erreklamazioen ondorioetarako. Erreklamaziorik aurkezten ez bada, erabaki hau behin-betikotzat joko da. Espediente honi Aurrekontu Orokorra onesteko ezarritako gainerako tramiteak eman beharko zaizkio.

...///...

...///...

IV.- SAN JOSEKO BIRRURBANIZAZIO LANEN ESLEIPENA.-

San Joseko Birrurbanizazio Proiektuaren lanak, prozedura irekia eta lehiaketa publikoaren bidez esleitzeko kontratazio espedientearen prozedura nola dagoen ikusi ondoren.

Horretarako irekitako denboraldian honako 6 eskeintza hauek aurkeztu zirela:

- CONSTRUCCIONES FRESNEDA, S.L.
- U.T.E. CONSTRUCCIONES BRUES, S.A - FERNANDEZ CONSTRUCTOR, S.A.
- ECAY- ANDUEZA, S.L.
- CONSTRUCCIONES ERGA, S.L.
- CONSTRUCCIONES MITXAIK, S.L.
- CONSTRUCCIONES UBIRI, S.L.

eta hauetatik ondorengo 4 hauek:

- U.T.E. CONSTRUCCIONES BRUES, S.A. - FERNANDEZ CONSTRUCTOR, S.A.
- ECAY- ANDUEZA, S.L.
- CONSTRUCCIONES ERGA, S.L.
- CONSTRUCCIONES UBIRI, S.L.

onartu zirela kontutan izanda.

Kontratazio Mahaiak, Udalarentzat eskeintzarik abantailatsuena izateagatik, esleipena Ekay-Andueza, S.L.ri egitea proposatzen duela kontutan izanda.

Administrazio Publikoen Kontratuen Legearen 85etik 89ra dihoazten artikulua ikusi ondoren, Osoko Bilkurak, bertaratutako bere partaide guztien adostasunez, honako akordioak hartzen ditu:

Lehena.- Lizitazio egintza ontzat ematea.

Bigarrena.- San Joseko Birrurbanizazio Proiektuko lanak burutzeko lehiaketaren esleipena Ekay-Andueza, S.L.ri egitea aurkeztutako eskeintza udalarentzat abantailatsuena izateagatik, bederatzirehun eta berrogeita bi mila laurehun eta hamaikaeuro eta hogeizentimotan (942.411,20 €), %16ko B.E.Z. barne, lizitazio oinarriarekiko %9,75eko baja suposatzen duelarik.

Hirugarrena.- Esleitzaileari akordio hau jakinarazten zaionetik 15 egun naturaletako epean behin betiko bermea jarri beharko duela adieraztea, eta

Laugarrena.- Dagokion administrazio kontratua izenpetua izan dadin Alkatea eta Idazkaria behar den zabaltasunez ahalmentzea.

V.- ARANTXA IRASTORTZAK TARTEJARRITAKO KONTENTZIOSO-ADMINISTRATIBOA.-

Arantxa Irastortza Irazustak kontentzioso-administratibo helegitea jarri du etxebizitza bakarreko eraikina eta nekazal eraikin bat eraikitze obra baimen eskariaren aurrean Udal honek emandako ezetzaren aurrean.

Hau dela eta Donostiako 2 Zbk.dun Kontentzioso-Administratibo Epaitegitik errekeritua izan da udal hau administrazio espedientea bidali eta interesatuei enplazamendua egina izan dadin.

...///...

...///...

Honen aurrean, Alkateak, 2002ko ekainaren 24ko alkatetzaren ebazpen bidez, honako erabakiak hartu zituen:

1. Espedientearen kopia bidaltzea.
2. Gipuzkoako Foru Aldundiko Nekazaritza Departamendua enplazatzeari.
3. Udala prozedimenduan bertaratzea, Jon Orue-Etxebarria Iturri letratuari Udala defendatzeko ardura emanez

Orain gaia Osoko Bilkurara ekartzen da, honek alkatetzaren ebazpenean erabakitakoetan berretsi dadin.

Osoko Bilkurak, gaia aztertu ondoren, bertaratutako bere 5 partaideen (EAJ, EA) aldeko botuekin, Arantxa Irastortza Irazustak tartejarritako kontentzioso-administratibo helegitearen aurrean alkatetzaren ebazpen bidez erabakitakoetan berrestea erabakitzen du.

VI.- OROBIONEREN BIRRERAIKUNTZA LANEN ESLEIPENA.-

Orobione etxearen birreraikitze lanen obra zuzendaritza daramaten Juan Jose Garmendia Soria eta Roberto Gartzia Azpiri arkitektoek, lanen 16. eta 17. zertifikazioak aurkeztu dituzte.

Zertifikazio hauen zenbatekoak honako hauek dira:

- 16. zertifikazioa: HOGEITA LAU MILIOI SEIREHUN ETA HIRUROGEITA SEI MILA BEDERATZIREHUN ETA HOGEITA BEDERATZI (24.666.929,-) peseta (148.251,23 €)takoa eta 2002ko martxoari dagokio.

- 17. zertifikazioa: HOGEITA LAU MILIOI HIRUREHUN ETA ZORTZI MILA BERREHUN ETA HEMEZORTZI (24.308.218,-) peseta (146.095,33 €)takoa eta 2002ko apirila, maiatza eta ekainekoa da.

Udal arkitekto eta arkitekto teknikoak egindako txostenean 16 eta 17. zertifikazioetan proiektuarekiko egon diren aldeak eta hauen zergatia azaltzen dute eta eman diren prezio desbideraketak onargarriak direla adieraziz 16 eta 17. zertifikazio hauek onatzen eman daitezkeela esaten dute.

Proiektuarekiko egondako aldeak proiektuaren aurrekontuarekiko sei milioi seirehun eta laurogei mila seirehun eta laurogeita bat (6.680.681,-) pesetatako (40.151,70 €) gehikuntza suposatzen du.

Hau honela, gaia bozketan jarri eta Osoko Bilkurak, bertaratutako bere 5 partaideen aldeko botuekin (EAJ, EA) zertifikazio hauek onartzea erabakitzen du.

VII.- 2004KO EUSKAL HERRIKO TXIRRINDULARI ITZULIA.-

Kiroletako zinegotziaren aldetik 2004ko Euskal Herriko Txirrindulari Itzuliaren etapa bat Lazkaon izateari buruzko aukera planteatzen da.

Etapa Itzuliaren azkena izango litzateke eta bi zati izango litzuke, bat, goizean, lehen zatia denak baterakoa eta bestea, arratsaldean, erlojupeko banakakoa.

...///...

...///...

Lazkaon egin beharreko antolaketaz Lazkao Kirol Elkarteak arduratuko litzateke eta Udalari izan daitekeen ekonomi kostuaren kargu egitea eskatzen zaio.

Kostua, guztira, gehienera ere zortzi milioi eta bostehun mila (8.500.000,-) pesetatakoa (51.086,03 €) izango da baina itzuliaren antolaketaren inguruan antolatuko diren beste jardueretatik kostu honen erdia atera daitekela estimatzen da, Lazkao Kirol Elkartekoekin izandako elkarrizketetan adierazi denez.

Guzti hau honela, osoko Bilkurak, bertaratutako bere 5 partaideen (EAJ, EA) aldeko botuekin, zera erabakitzen du:

- 1.- 2004ko Euskal Herriko Txirrindulari Itzuliaren 5. etapa, Itzuliaren amaierakoa, Lazkaon izateak daukan ekonomi kostua, gehienez ere berrogeita hamaika mila eta laurogeita sei euro eta hiru zentimo (51.086,03 €)takoa, Lazkaoko Udalak bere gain hartzeko konprometua onartzea.
- 2.- Euskal Herriko Txirrindulari Itzuliko Antolatzaileei konprometzu honen berri eman eta 2004ko Itzuliaren amaierako etapa Lazkaon izan dadin eskatzea.
- 3.- Alkatea ahalmentzea, Lazkaoko Udalaren izenean, aurreko akordioa aurrera eramateko beharrezko diren dokumentuak izenpetu ditzan.

VIII.- GALDERA ETA ERREGUAK.-

Alkateak adierazten du datorren hileko azken osteguna jai eguna dela eta beraz osoko bilkura aurreratu egingo dela.

IX.- BILERAREN AMAIERA.-

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jotzen du, iluntzeko zazpi terdiak direnean nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dudalarik.

...///...